Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 381

Irailak 15, 2020

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Euskaltegien matrikulazioa
4 Welcome
5 Euskaraldia
6 Covid-19a eta ezkontzak
7 2020ko udaren balorazioa
8 Kirolak: Bidasoa Xake Kluba
9 Kirolak: Irune Muguruza (BAT)
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Eskolako itzulera
14 iGazte
15 Agenda

Janeth Carreño
Koordinatzailea
667 94 04 05

caser cuidados

INFORMA ZAITEZ!

Etxez etxeko laguntza

EDOZEIN EGOERATAN:
- Menpekotasunean
- Ahalmen urritasunean
- Konbaleszentzia edo gaixotasunean

EDOZEIN DENBORAZ
- Aldi baterakoa
- Iraunkorra

EDONON LAGUNTZEN
- Etxean edo etxetik kanpo
- Ospitalean
-Egoitzan
-Enpresan

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1920. urteko aldizkaririk topatu ezean, 1918. urteko aldizkariak aukera aproposa izan daitezke duela mende bat Irunen albiste ziren gertaerak errepasatzeko. 1918ko irailaren 15ean argitaratutako "El Bidasoa" aldizkaria Stefaniai piano-joleak Irunen eskainitako azken kontzertuaren inguruko kronika zabal batekin hasten du "RE-LA-MI-DO"-k. Ostean, aldizkariaren sorreratik 3 urte bete direla gogoratzen duen artikulua irakur daiteke. Titok olerki itsurako testu baten bitartez alaba bat izan berri duen lagunari bere burua eskaintzen dio etorkizunean alabarekin ezkondu eta alaba bat izateak eragin ditzakeen "buruhausteak" saihesteko asmoz. Do Mayorrek, berriz, El Bidasoa aldizkaria musika banden inguruan gehiegi luzatzen ari dela salatzeko idatzia argitaratzen du.

"X." izenordea erabiltzen duen aldizkariko kolaboratzaileak Hondarribiko hondartzan eguna pasa ostean, etxerako itzuleran poliziarekin izandako topaketaren anekdota kontatzen du. Jarraian, Ballesterok Irunen egindako egonaldiaren inguruan ezagutzen diren xehetasun guztiak argitaratzen dira. Aldizkariaren hurrengo idatzian Cástor Gonzalez hiriko maisuaren heriotzaren berri ematen da. Satarka kolaboratzaileak "Maitasun Naya" olerkia publikatzen du irailaren erdialdeko zenbaki honetan. Ostean, udaletxearen eraikinean hobekuntza lanak egiteko adostutako akordioaren detaileak azaltzen dira.

B. Urtizek sinatutako idatzian fruta-arbolak zaintzeko zenbait gomendio ematen dira hiriko arbolen itsura eta osasuna hobetzeko baliagarriak izango direlakoan. Kriol kronikan, berriz, Gipuzkoako Futbol Txapelketaren inguruko datu nagusiak ezagutarazten dira. Hortaz gain, azkenaurreko orrialdearen gripearen epidemiaren lehen aipamen bat egiten da aldizkarian, nahiz eta momentu hartan Irunen egoera oraindik nahiko kontrolatuta zegoela aipatu. Azkenik, "Hace años ...", "Notas Municipales" eta "Ecos de sociedad" atal finkoekin amaitzen da "El Bidasoa" aldizkariaren 159. zenbakia publizitatez betetako azken orrialdearen aurretik.

Argazkiak:
G57686: Colón pasealekuaren argazkia XX. mendearen hasieran pasealekua berrurbanizatzeko lanak egin aurretik.
G29186: Irungo udaletxea eta San Juan Harria zutabea.
G40550: Hondarribia kalea, ezkerrean Gurutze Gorriaren eraikina eta eskuinean El Pinar lursailean botatako zuhaitzak ageri direlarik.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
Joseba Arozena

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Irungo Euskaltegiek hirian euskara ikasteko eskaintza zabala aurkeztu dute ikasturte berriaren hasieran

Udal Euskaltegia

Irungo Udal Euskaltegian irailaren 18ra arte zabalik egongo da 2020/21 ikasturtean izena emateko aukera. Urritik ekainera ordu kopuru desberdineko ikastaroak eskaintzeaz gainera, LANNAHI ikastaro trinkoak eskainiko ditu aurten ere Udal Euskaltegiak.

Udal Euskaltegian modulazio desberdineko ikastaroen artean aukeratu ahalko da ordutegi eskaintza zabalarekin. Hau da, egunero ordu eta erdi, 2, 3 edo 4 orduko ikastaroak, astean 2, 3, 4 eta 5 eguneko ikastaroak ordutegi desberdinetan, larunbat goizetan C1 azterketa prestatzeko ikastaroa ... Ikastaroak urriaren 1ean hasi eta ekainaren 22an bukatuko dira. Ikastaroen prezioa moduluaren araberakoa da baina asistentzia eta aprobetxamendu ona duten ikasleek euskara ikasteko udalak ematen dituen bekak eskuratu ahal izango dituzte. Beka honen bitartez matrikula prezioaren %100a arte jaso dezake ikasleak.

Ikastaroak aurrez aurre eskainiko dira. Ikasle eta langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko beharrezkoak diren prebentzio neurriak hartuko dira. Horretarako, izena emandako ikasle kopuruaren arabera, beharrezkoak diren egokitzapenak egingo dira (eskolak txandaka ematea…).

Udalak, gainera, urriaren 1etik abenduaren 22ra ikastaro trinkoak debalde eskaintzen dizkie langabezia egoeran dauden ikasleei edo gehienez ere %50eko lanaldia duten ikasleei LANNAHI programaren bitartez. Programa hori Euskara Arloak martxan jarri zuen euskara ikasteko ahaleginean ari diren edo aritu daitezkeen irundarrentzako. Ikastaro hauek goizez egunero 4 ordukoak edo arratsaldez egunero 3 ordukoak izaten dira.

Udal euskaltegiko ikastaroetan interesa duten pertsonek, hala nola LANNAHI programan interesa dutenek irailaren 18ra arte izen-ematea egiteko aukera izango dute. LANNAHI ikastaroetan apuntatzeko asmoa dutenek izenematea internetez egin beharko dute HAZ24h zerbitzuaren bitartez , Irun Txartela edo beste ziurtagiri elektroniko batzuk erabiliz (NAN elektronikoa, IZENPE txartela..). Hortaz gain, San Martzial kaleko egoitzako HAZeko autozerbitzu terminalak erabili ahal izango dituzte izen-ematea egiteko.

Gainerako ikastaroetan interesa duten pertsonak irailaren 18ra arte Urdanibia plazako 5. zenbakian kokatutako Udal euskaltegira hurbildu beharko dira. Harrera bulego ordutegian egingo da, hau da, goizetan 10:30etatik 13:30etara eta, arratsaldez ,16:30etatik 19:00etara.

Udal Euskaltegian eskainitako ikastaro guztientzat mailaketa proba egitea beharrezkoa izango da. Mailaketa probak udal euskaltegian egingo dira irailaren 3tik 18ra, goizez 10:30etatik 13:30etara eta arratsaldez 16:30etatik 19:00etara.

Irungo AEK

Irungo AEK euskaltegian irailaren 25era arte zabalik egongo da 2020/2021 ikasturteko ikastaroetan izena emateko aukera. A1etik C2ra bitarteko euskara maila guztiak eskaintzen dira Irungo AEKn. Gainera, mintzarako talde bereziak antolatuko dira ere. Hortaz gain, ikastaroak aurrez aurre egiteko aukeraz gainera, era konbinatuan, online eta autoikaskuntza formatuan egiteko aukera eskaintzen da.

Osasun krisialdia dela eta, eskoletan musukoa uneoro erabiltzea derrigorrezkoa izango da. Gainera, ikasleen arten metro eta erdiko distantzia gordeko da eta klase bakoitzeko ikasle kopurua 6 eta 8 ikasleen artekoa izango da. Ikasleek astean zehar iraupen ezberdina duten ikastaroen artean aukeratu ahalko dute, hau da, 5, 6 eta 9 orduko formazioak eskaintzen dira.

Izen-emateak era presentzialean egingo dira, nahiz eta interesdunek 943628834 telefono zenbaki finkora deitu, 688746633 telefono mugikorrean WhatsApp bidez edo irun@aek.eus posta-ekektronikora idatziz informazioa eskuratzeko aukera izango dute ere. Izen-emateak egin edo ikastaroen inguruko informazioa lortu ahal izateko Irungo AEKko bulegoa astelehenetik ostiralera goizez 10:00etatik 13:30ak arte eta, arratsaldez, 17:00etatik 20:00ak arte. Larunbatetan, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

Herri Jakintza

Nafarroa hiribidean kokatutako Herri Jakintza euskaltegian izen-emate epea irailaren 28an itxiko da. Bertan izen ematea egin ahal izateko, 943635266 telefono zenbakira deitu edo euskaltegira hurbiltzea komeni da. Konfinamenduaren ostean, Herri Jakintza euskaltegia ekainaren 8an martxan jarri zen berriro ere eta uda osoan zehar irekita egon da lau talderekin.

Herri Jakintza euskaltegian A1etik hasita C1era bitarteko euskara maila guztietako ikastaroak eskaintzen dituzte, azterketa ofizialen prestakuntzara bideraturik. Astean zehar iraupen ezberdina duten ikastaroak daude aukeran, zehazki, 6, 7,5, 9 eta 12 orduko ikastaroak. Ikasturtea urriaren 5ean hasiko da. Aurrekoetan bezala, kasu honetan ere aprobetxamendu onarengatik diru-laguntzak jasotzeko aukera izango dute ikasleek.

Momentuko osasun egoera dela eta, neurri bereziak hartu dituzte ikasturte berrira begira. Ikasgelak handiak izan arren, ikasgela bakoitzeko ikasle kopuru maximoa 8 pertsonakoa izango da. Musukoa uneoro erabili beharko da euskaltegi barruan. Momentuz, eskolak modu presentzialean emango dira eta, egoerak okerrera egingo balu, klaseekin modu erdi-presentzialean edo online egiten jarraitzeko modua bilatuko lukete.

ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

Olaizola
INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Libururik gabeko eta ikasle bakoitzera egokitutako metodologia berritzailea aurkeztu du Welcome akademiak

Welcome School of English akademia 1988. urtean sortu zenetik ingelesaren irakaskuntzan espezializatutako prestakuntza zentroa da. 2020/2021 ikasturteari begira zentroak Morris Academyrekin bat egin du, zuzendaritza aldatu eta Morrisen metodologia propioa bereganatuz. Amaia Morris akademiako zuzendariak ikasturte honetako nobedadeak azaldu ditu.

Welcomen zenbait nobedade izango dira ikasturte honetarako?
Bai, aurten akademiaren zuzendaritzan aldaketa bat izango da eta dena goitik behera aldatuko da, akademiaren izena izan ezik. Hau da, zuzendaritzaz gainera, metodologia aldaketa nabaria sumatuko dute ikasleek.

Zertan datza aurten jarraituko den metodologia berriak?
Jendeari arreta deitzen dio libururik erabiltzen ez dugula. Beste aldaketa aipagarri bat, talde bakoitzak egun berean irakasle bat baino gehiago izango dituela da. Horretarako, eskola orduak atal ezberdinetan banatu eta irakasle bakoitza atal baten lanketaz arduratuko da.

Libururik gabe, zein materialetan oinarritzen zarete eskolak gidatzeko?
Liburu bat erosi eta lehen orrialdetik azkenera egin ordez, interesgarria eta baliagarria iruditzen zaigun material guztiarekin datu base bat sortuta dugu. Bertan, iturri ezberdinetatik lortutako baliabideak dauzkagu eta materiala talde bakoitzaren beharren arabera aukeratuko dugu. Prestakuntza zein materiala ikasle eta talde bakoitzaren beharretara egokitzen dugu.

Metodologia berri honek adin guztietako pertsonen ikasketa prozesua laguntzen du?
Bai, izan ere, klaseak zati ezberdinetan banatzen direnez, ikasleei errazagoa zaie arreta mantentzea. Jakina da haurrek kontzentrazio maila baxuagoa dutela, baina, helduentzat ere zaila izan daiteke lanegun baten ostean erne egotea.

Zein mailako eskolak eskaintzen dituzue?
Zortzi urteko haurretatik hasita, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasle guztiei eta baita helduentzako ikastaroak antolatzen ditugu. Hortaz gain, Cambridge-ko hizkuntza maila guztien prestaketa eskaintzen dugu gure ikastaroetan. Gainera, azterketa ofizialak prestatzeko formazioa eskaintzen dugu, akademiako irakasle asko Cambridge-ko aztertzaileak garen aldetik.

Zenbateko iraupena izan ohi dute eskolek?
Cambridge-ko azterketak prestatzera bideratuta dauden eskolak astean bi egunetan egiten dira eta eskola bakoitzak ordu eta erdiko iraupena dauka. Haurren kasuan, Lehen Hezkuntzako 6. maila arteko ikasleak astean bi egunetan etortzen dira eta egun bakoitzean ordu bateko formazioa jasotzen dute. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailatik aurrera eta helduen taldeak barne, ordu eta erdiko klaseak jasotzen dituzte ere.

Irakasle natiboak izatea balio erantsia suposatzen du akademiarentzat?
Bai, Irlanda zein Hegoafrikako irakasleak dauzkagu. Leku batetik bestera ingelesaren doinua guztiz desberdina denez, aniztasun hori ezagutzea oso lagungarri da ikasleentzat azterketa ofizialak prestatzerako orduan.

Gainera, teknologia berriak erabiltzeko apustua egiten duzue?
Hori da. Liburuan egin daitezkeen jarduerak ordenagailuz egiten dituzte eta, era honetan, zereginak interesgarriago egiten zaizkie ikasleei. Guk sortutako programekin lan egiten dute ordenagailuetan.

Momentuko osasun krisialdia dela eta, segurtasun neurri bereziak hartu dituzue?
Ikasleen arteko segurtasun distantziak errespetatzeaz gainera, ikasleak banatzeko manparak erosi ditugu. Gardenak direnez haien artean erlazionatzeko aukera izango dute, baina, inolako kontakturik gabe.

Ikasturtearen amaieran, EEBBetan edo Irlandan egonaldiak egiteko aukera eskaintzen duzue?
25 urte inguru daramatzagu Utah-n egonaldiak antolatzen. Joan den urtean Irlandan gauza bera egiten hasi behar ginen, baina, Covid-19arekin ezinezkoa izan zen. Aurten, ordea, ideia horri eusteko asmoa dugu.

Zein pausu jarraitu beharko dituzte Welcome akademian izena eman nahi dutenek?
Errazena posta elektroniko edo telefono dei baten bitartez gurekin harremanetan jartzea da. Dena dela, norbait akademiara hurbildu eta instalakuntzak ikusi nahi baditu, pozik erakutsiko dizkiogu.

“Prestakuntza zein materiala ikasle eta talde bakoitzaren beharretara egokitzen dugu”

“Klaseak zati ezberdinetan banatzen direnez, ikasleei errazagoa zaie arreta mantentzea”

Martxan daude bigarren Euskaraldia antolatzeko prestaketak

Euskaraldiaren bigarren edizioa 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4era egingo da. Aurtengo edizioan, Ahobizi eta Belarriprest rolak ez ezik, hiriko entitateek Ariguneak sortuko dituzte. Irungo Udalaren Euskara arloak hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketan parte hartzeko izen-emate epeen berri eman du.

Irun hiri gisa Euskaraldiaren bigarren edizioan parte hartzeko izena eman du. Mónica Martínez Euskara ordezkariak azaldu duenez. Osasun krisialdia dela eta, antolatzaile nagusiek markatutako irizpideak jarraituz bideratuko da ekimena. "Irundarren hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala indartu nahi da bigarren edizio honetan", Mónica Martínezek adierazi duenez.

"Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan" lelopean antolatuko da Euskaraldiaren bigarren edizioa. 2018ko Euskaraldiaren edizioak norbanakoei hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa soziala proposatu zien. Lan horretan sakontzeko, aurtengo edizioaren helburua, norbanakoen ariketa ez ezik, talde ariketa ere izatea da. Helburu hori betetzeko, Eusko Jaurlaritza eta Topagunea dira ariketa sozialaren bigarren edizioaren antolatzaile nagusiak.

Ariketak talde izaera izan dezan, aurreko edizioan erabilitako Ahobizi eta Belarriprest rolez gainera, Ariguneak ere izango dira aurten. Ariguneak entitate publiko nahiz pribatuetan euskaraz lasai aritzeko sortuko diren guneak izango dira. Gune horiek barne-funtzionamenduan (barne-ariguneak) nahiz herritarrekiko harremanetan (kanpo-ariguneak) sortuko dira. Arigunea osatzen dutenek gutxienez euskaraz ulertzen dutela bermatu beharko dute, hau da, Belarriprest rolean aritzeko.

Hirian Ariguneak sortuko dituzten entitateek irailaren 27ra arte izango dute Euskaraldian izena emateko aukera. Langintza honetan ez dira bakarrik arituko, izan ere, Mónica Martínez Euskara ordezkariak azaldu duenez, "udalaren erabateko laguntza izango dute prozesuan".

Uvesco eta Bidasoa Euskaraldian

Irunen, Bidasoa Eskubaloi Taldeak eta Uvesco taldeak Euskaraldiaren bigarren edizioan parte hartuko dute, besteak beste. Euskadiko BM eta Super Amara supermerkatuak kudeatzen dituen UVESCO taldearen ordezkariak azaldu duenez ahalik eta Barne eta Kanpo Arigune gehien sortu nahi dituzte, horretarako aukera dagoenean. Uvesco Taldeko Pedro Galdosek, BM eta Super Amarako Supermerkatuetako matrizearen ordezkariak, adierazi duenez, "kalitatezko zerbitzuarekin dugun erantzukizunean beste urrats bat da, bertan funtsezkoa baita euskara integratzea, bai langileen artean beren lantokian, bai bezeroentzako zerbitzuan, gero eta arreta gehiago eskatzen baitute euskaraz gure supermerkatuetan erosketak egiterakoan".

Bidasoa eskubaloi taldearen presidenteak bide beretik joko dutela adierazi du . Gurutz Aginagaldek, gaineratu duenez: "Gutxinaka bada ere, gure inguruan euskarak gero eta erabilpen maila handiagoa du zorionez eta bide hori jorratuz, Bidasoan ere, eskualdeko eta Gipuzkoako erakundea den heinean, aurrerapausoak eman behar ditugu". Bidasoako presidentearen hitzetan, oinarriak etxean edukita, kazetari eta beste hamaika eragileri euskaraz erantzun eta honen balioa azpimarratu nahi dute. Hortaz gain, presidenteak azaldu duenez, jokalarien artean oso ohikoa da batzuen artean euskaraz aritzea.

Gurutz Aginagaldek Irungo elkarte guztiak Euskaraldiaren bigarren edizioan parte hartzera gonbidatu ditu azalduz, "bide horretan, Euskaraldiaren leihoaz baliatzeko dei egiten diegu irundar, bidasotar eta gipuzkoar orori, gure artean oso ohikoa den euskaraz hanka sartzearen beldurraren aurrean, beldur gabe ibil daitezela, elkar ulertuko garelako".

"Irundarren hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala indartu nahi da bigarren edizio honetan"

Mónica Martínez, Euskara ordezkaria

"Irailaren 17an izango da lehen Euskaraldia Batzordearen eraketa bilera"

Lide Redondo, Euskaraldiko Irungo koordinatzailea

Ahobizi eta Belarriprestak aurrerago

Ariguneekin batera, norbanakoen hizkuntza-ohiturak aldatzeari ere eutsiko die 2020ko Euskaraldiak; Ahobizi eta Belarriprest rolen bidez egingo da oraingoan ere. Bigarren ariketa sozialean parte hartu nahi dutenek, irailaren 24tik aurrera izango dute ariketan izena emateko aukera. Lide Redondo Euskaraldiko Irungo koordinatzaileak gogoratu duenez, "aurreko edizioan 3.600 irundarrek parte hartu zuten". Horietatik, 2.550 Ahobizi izan ziren eta Belarriprest 1.050. Norbanakoen izen-ematearen xehetasun gehiago aurrerago eskainiko dira.

Euskaraldia Batzordea irailaren 17an

Lehen ariketa sozialean bezala, Irunen gizarteko eragile ezberdinetako ordezkariek osatutako lantaldearen eta Udalaren artean lankidetzan Euskaraldia antolatu nahi da. Horretarako prozesua hastera doa Euskaraldiko Irungo koordinatzailea den Lide Redondok adierazi duenez, "irailaren 17an izango da lehen Euskaraldia Batzordearen eraketa bilera". Bilera arratsaldeko 18:00etan hasiko da, Palmera Montero Guneko 2. aretoan. Batzar irekia izango da, interesa duen hiritar orori zuzendua. Bertan, aurtengo edizioaren aurkezpena egingo da, baita antolatzeko nondik norakoak azaldu ere; gainera, Talde Eragilean parte hartzeko gonbitea luzatuko da.

Bilera irekia bada ere, COVID-19arengatik ezarri beharreko segurtasun neurriak direla eta, bileran parte hartzeko aurrez izena eman beharko da 647975885 telefono-zenbakira deituta edo irun@euskaraldia.eus helbide elektronikora idatzita.

2020ko udak utzitako turismo datuek denboraldi hasierako aurreikuspenak gainditu dituzte

2020ko udak utzitako turismo datuek denboraldiaren hasieran egindako aurreikuspen negatiboak gainditu dituzte. Espero zitekeen bezala, aurtengo udak utzitako datuek aurreko urtekoak gainditzea lortu ez badute ere, ez dira urrutiegi ibili eta udako hilabeteetan zehar Bidasoa eskualdean turismo mugimendua izan dela erakutsi dute.

Irunen hotelen okupazioak gora egin zuen abuztuko hilabetea zehar, izan ere, %83,92ra irtsi baitzen. Abuztuko okupazioa 2019ko epe berdinean baino %6,7 txikiagoa izan da aurten. 2020ko uztaileko datuekin alderatuz gero, okupazioak %12 igoera izan zuen, abuztuko hilabetea turismoa gehien mugitzen duen hilabetea dela baieztatuz.

Oihana Yerga Urdanibia Park hoteleko zuzendariaren esanetan, "iragarpen guztien aurka, uda oso ondo joan da". Urdanibia Park hotelaren kasuan, uztailean okupazioa %80,2koa izan zen eta abuztuan %93ko okupazioa izatera iritsi dira, batez besteko prezioa iazkoaren antzekoa izanik. Hotelera etorri diren pertsonen jatorriari dagokionez Oihana Yergak azaldu du, "turista nazionalen gorakada nabaritu dugu". Dena dela, Frantziatik eta Erresuma Batuetik ere jende asko etorri dela gaineratu du Urdanibia Park hoteleko zuzendariak eta, zentzu horretan, 2019ko udako datuak mantendu dira.

Hala ere, Yergak dioenez, "jatetxeari dagokionez, datuak asko jaitsi dira. Martxoan, Alarma Estatua hasi baino lehen, hoteleko jatetxea oso ondo ari zen funtzionatzen, eta orain, ordea, datuak oso txarrak dira ". Datozen hilabeteei begira, Oihana Yergak esan du "ziurgabetasun handia" dagoela. "Gu, adibidez, asko bizi ginen Imserso-ren bidaietatik, eta aurten, beraz, enpresa-turismoa erakartzen saiatuko gara. Hala ere, uste dut datorren urteko apirilera arte ezin izango ditugula zailtasunak gainditu".

2.788 bisita Turismo Bulegoan

Turimso Bulegoak 2.788 bisita izan ditu guztira (1.377 uztailean eta 1.411 abuztuan); horietatik %45,6a Irungo jendearenak izan dira, %4,6a Euskadiko beste leku batzuetako jendearenak eta %26,3a estatuko turismoari dagozkionak, Katalunia, Aragoi, Valentzia eta Nafarroako bisitariak nabarmentzen direlarik. Gainerako %23,5a atzerritarrak izan dira, batez ere Frantziakoak. Hala ere, Donejakue bidearekin zerikusia duten kontsulten kopuruak behera egin du, erromesen aterpetxeak itxita daude eta.

"Bizi dugun egoera kontuan hartuta, datu hauek oso positiboak dira", adierazi du Miguel Angel Páez Bidasoa bizirik-eko presidenteak. "Turismo Bulegoa bisitatu duten pertsonen kopurua 126 baino ez da jaitsi iazko aldi berarekin alderatuta. Horrek, hotelen okupazioak %80a gainditu duelarekin batera, harro sentiarazten gaitu", adierazi du Miguel Angel Páezek. Bidasoa bizirikeko presidentearen ustetan, jendeak "oso urrun" joan nahi ez duen denbora honetan, Irun helmuga bezala aukeratzeak argi uzten du hiria erakargarria dela. Hortaz gain, gaineratu du, "garai hobeak iristen direnean turismoak goraka jarraituko du, aurreko urteetako datuek erakutsi zuten bezala".

Bisitari gehiago landa-eremuetan

Turismo Bulegora hurbildu diren bisitari gehienek naturako ibilbideei buruzko informazioa eskatu dute. Gainera, Lapurriturriko informazio-gunean kontsulta ugari egin dira, batez ere frantsesen aldetik.

Maria Serrano Bidasoa bizirikeko presidenteordeak azaldu duenez, "Covid-19ak sortutako egoeraren aurrean, pertsona askok gune naturalak bisitatzea nahiago dute, jende pilaketak saihesteko". Zentzu horretan, presidenteordeak azpimarratu duenez, Irunek aukera asko eskaintzen ditu naturan irteerak egiteko, eta, beraz, ez da harritzekoa pertsona askok oporretarako hiri hau aukeratu izana.

Oiasso museoa

Irungo Oiasso Erromatar museoak 3.563 bisitari jaso ditu udako hilabeteetan zehar. Covid-19ak eragindako osasun krisialdiaren ondorioz, udan zehar ezin izan da ekitaldi jendetsurik egin, eta, ildo horretatik, ez da Dies Oiassonis jaialdia antolatu. Horren ondorioz, Museoaren udako emaitzak % 50 baino gehiago apaldu dira. Nolanahi ere, beste uda batzuetan, erromatar jaialdiaren egunetako kopuru bereziak alde batera utzita, bisitari kopurua uda berezi honetakoaren ingurukoa izan da: 3.500.

Oiasso museoak antolatutako jardueretan, Irugurutzetako meatze-barrutia izan da eskari handiena izan duen irteera, eta, ondoren, Santa Elena-ra bisita eta igandeetako Erromatar tourra. Irugurutzetara tren berdean egindako bisita gidatuetan, Ama Xantalengo nekropolira egindakoetan eta tailer didaktikoetan, berriz, erabiltzaile kopurua murriztu da, eta zegozkion prebentzio eta higiene neurri sanitarioak hartu dira, baina, edonola ere, 841 lagunek parte hartu dute; horrela, Irugurutzetako eskaintzak iazko erabiltzaile kopuruaren %75ri eutsi dio. Bestetik, "Kostaldeko euskal sukaldaritza: erromatar garaitik abangoardiara" eta "Meazuri: argiak eta koloreak" aldi baterako museoko erakusketek 1.601 bisitari erakarri dituzte.

Ezteien sektorea osasun krisialdiaren ondorioak pairatzen ari da

Argazkia: Estudio Gover

Covid-19a Irunera iritsi zenetik, pandemiak osasungintzan merkataritza, ostalaritza, hezkuntza, ... bezalako sektoreetan eragindako kalte eta ondorioez luze hitz egin da. Gainontzeko sektoreetan gertatu den bezalaxe, ezkontzen inguruan lan egiten duten profesional anitzek osasun krisialdiren eta pandemiak eragindako murriztapen neurrien ondorioak pairatzen ari dira.

Ezkontzak bikote baten elkarketa ospatzeko une seinalatuak dira, mugarik gabeko ospakizun eta ezkonberrien zein gonbidatuen gozamenerako antolatu ohi dena. Covid-19a iritsi zenetik araurik gabeko egun horri mugak jarri zaizkio. Murriztapenek, batez ere, gonbidatuen kopurua murriztu edo ezkontza egunean zehar dantzaldiak bezalako zenbait ekintza antolatzeko debekua eragin dute.

Murrizketak noraino iristen diren ikusita, ezkongai askok egun seinalatua atzeratzeko erabakia hartu dute, datorren urtean egoera lasaiagoa eta normalagoa izango delakoan. Fernando Vergara Estudio Goverreko argazkilaria eta Married dendako Nagore Camisón dendaria bat datoz aurtengo ezkontzen %90 gutxi gorabehera datorren urterako atzeratu direla baieztatzerakoan. Fernando Vergara argazkilariak azaldu duenez, "aurten guztira 6 ezkontza egingo ditut, egoera normal batean 25 ezkontzetarako kontratatu ohi nauten bitartean". Ezkontza dataren atzerapenak, urteko lan karga eta eskaria murrizteaz harago, aparteko gastuak eragiten ditu Nagore Camisónek azaldu duenez, "ezkongai askok soinekoak dendan denbora luzeagoz uzten dituzte edo eskariak atzeratzen dituzte". Dendariak azaldu duenez, "zorionez" oraindik ez zaio eskaera bertan behera utzi nahi duen bezerorik hurbildu.

"Maskara eta pertsonen arteko distantziaren ondorioz argazkietan zenbait gauza ezkutuan gelditzen dira, baina, ez guztiz"
Fernando Vergara, Estudio Goverreko argazkilaria

Hortaz gain, ezkontzen antolaketan lan egiten duten profesional gehienentzat telelana irtenbide ezinezkoa da. Izan ere, Fernando argazkilariak bezala askok ezkontzaren egunen aurrez aurre lan egiten dute. Nagore dendariaren kasuan, ezkontza aurreko prestaketetan zerbitzua eskaintzen duten profesionalentzat ere ezinezkoa da ezkongaiekin aurrez aurreko harremana izan gabe lan egitea. Gainera, konfinamenduan zehar denda Letxunborro hiribidearen 100. zenbakira lekualdatzeko erabakia hartu zuen. Gauzak horrela, profesionalek segurtasun neurri guztiak errespetatzen dituzte haien zerbitzua eskaintzerakoan. "Ezkongaiek probatutako soinekoak baztertu eta tenperatu altuko lurrunarekin desinfektatzen ditut, soinekoak ondatu gabe", azaldu du Nagore Camisón dendariak.

Osasun krisialdiaren harira, osagarri berriak erabiltzen dira eztei egunean. Maskarak edo gel hidroalkoholikoa pandemia garaiko ezkontza batean ezinbesteko elementu bihurtu direnez, profesionalek haien zerbitzua egoera berrira egokitu behar izan dute. Estudio Goverreko Fernando Vergarak adierazi duenez, argazkietan maskarek keinuak edo sentimenduak ezkutatu ditzakete: "Maskara eta pertsonen arteko distantziaren ondorioz argazkietan zenbait gauza ezkutuan gelditzen dira, baina, ez guztiz", . Fernandok ezkonberri zein gonbidatuen espresioa argazkietan islatzeko modu berriak bilatzen dituen bitartean, Nagorek, bezeroen eskariak erantzuteko, soinekoen ohial soberakinak aprobetxatzen ditu ezkontza egunerako maskarak sortzeko.

Egoerara moldatutako ezkontzak

Normaltasun berrian ezkontzak orain arte ospatu izan diren bezala ospatzea ezinezkoa dela ikusita, berrasmatzea da ezkongaien aukera bakarra. Estudio Goverreko argazkilariak azaldu duenez, bere azken ezkontzetako bat Nuria eta Josurena izan da. Ezkongaiek, momentuko neurriak direla eta lunch-a eta dantzaldia bezalako ekintzak antolatzea ezinezkoa izango zela ikusita, umorezko ikuskizun eta karaoke batekin gonbidatuak aho zabalik utzi zituzten. "Neurri guztiak errespetatuz jendeak asko disfrutatu zuen ezkontza hartan", argazkilariak azaldu duenez.

"Ezkontzeko benetako gogoak dauzkanak lehenago edo beranduago ezkonduko da"
Nagore Camisón, Married-eko dendaria

Maitasuna beldurraren gainetik

Momentuko osasun egoeraren bilakaera oso aldakorra bada ere, ezkongai askok haien ezkontza aurreikusita zuten eguna ospatzeko erabakia hartu dute. Nagore Camisón dendariaren hitzetan, "ezkontzeko benetako gogoak dauzkanak lehenago edo beranduago ezkonduko da". Gaixotasuna ezkontzako parte-hartzaileen artean kutsatzeko beldurra baino gehiago, ezkongai askorentzat ezkontza eguna imajinatu zuten bezala izango ez dela ulertzea da erabakiarekin aurrera jarraitzeko oztopo nagusia. Fernando Vergara argazkilariak azpimarratu duenez, ostalaritzaren sektoreko profesionalak bereziki kezkatuta daude, haien kasuan murriztapenak oso zorrotzak direlako. Hortaz, arau guztiak zorroztasunez errespetatzeko ahalegin berezia egiten ari dira, ezusteko lan-ikuskapen batek arazorik eragin ez dezan.

Denboraldi korapilatsu eta ezohikoa amaitu aurretik, ezjakintasunez begiratzen diote ezkontzen sektoreko profesionalek datorren urteko denboraldiari. Profesional zein ezkongaiek ordurako egoera normalagoa izatea espero dute, aurten atzeratuak izan diren ezkontzak eta datorren urtean egitekoak zirenak ospatuko direlakoan. Arrazoi horregatik, Fernando Vergara urtero Ficoban antolatzen den "Los muñecos de la tarta" izeneko ezkontza azoka abendurako prestatzeko lanetan murgildurik dabil. Hortaz, ekaitzaren ostean eztialdia datorrelakoan, maitasunak ezbehar guztiak gainditukо dituela prentsatuz, aurrera egiteko modua topatu beharko du ezkontzen sektoreak.

Ate irekien jardunaldiak antolatuko ditu Bidasoa Xake Klubak ikasturte berria hasi aurretik

Bidasoa Xake Klubak ate irekien jardunaldiak antolatuko ditu iraileko hilabetearen amaieran. Urrian ikasturte berriari hasiera emango diote eskolar zein helduen taldeek. Kirolean hasiberriak diren zein ezagutzetan sakondu nahi duten xake jokalarientzako formazio ikastaroak eskaintzen ditu klubak.

Kluba 2019ko ekainean martxan jarri zen Palmero Montero gunean. Aurten, berrikuntza gisa, Irungo Anzaran, Lope de Irigoyen kaleko 19. zenbakian, kokatutako lokal propioa estreinatuko dute. Carlos Pascual klubeko presidenteordeak azaldu duenez, "eskaintza presentzialaren aldeko apustua egitea erabaki dugu". Klubaren jarduera zein izen-emateen inguruko informazio gehiago eskuratu nahi dutenek, ate irekien jardunaldiez gainera, bidasoaxake@gmail.com helbide elektronikoan edo 635702745 telefono zenbakiaren bitartez klubarekin kontaktuan jarri daitezke.

Carlos Pascual, Bidasoa xakle klubeko lehendakariordea Bigarren denboraldiari hasiera eman aurretik, irailaren 21etik 30era ate irekien jardunaldiak antolatuko ditu klubak Bidasoa Xake Klubaren lokalean. Ate ireki jardunaldiak astelehen eta asteazkenetan egingo dira arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara. Interesdunek ate irekien jardunaldietan klubaren instalakuntzak ezagutu, ikastoren eskaintza, ordutegiak eta egutegiak ezagutu edo izen-emateak formalizatzeko aukera egongo da. Carlos Pascual Bidasoa Xake klubeko lehendakariordearen hitzetan, "ate irekietako jardunaldietan zalantzak aurrez aurre argitzea lagungarria izan daitekeela uste dugu".

Bidasoa eskualdeko haur zein helduentzako formazio ikastaroak eskaintzen dira klubean. Horrela, Bidasoa Xake Klubaren eskolak xakean hasteko aukera eskaintzen du. Eskola eskolar garaian dauden 6 urtetik gorako haurrentzat zein helduentzat zuzenduta dago. Xake ikasleak maila ezberdinetan banatuko dira, hastapenetatik lehia mailaraino. Eskolak egun 63 ikaslez osatuta dago, Irunen eskolar mailako 6 talde eta 2 heldu talderekin eta Hondarribian 2 eskolar talderekin.

Hastapenetik txapelketara

Bidasoa Xake Klubean maila guztietako ikastaroak eskaintzen dira, astelehenetik ostiralera, Irun zein Hondarribian. Xakean lehen urratsak ematen dituzten horientzat hastapen ikastaroak eskaintzen dira. Ikastaro hauek ordu eta erdiko iraupena izan ohi dute eta astelehenetan edo ostiralera egiten dira. Ikastaroetan haurrak 6/10 pertsonako taldeetan sakabanatzen dira. Honela, ikasleek xakearen arauak ikasiko dituzte, taktika eta estrategia ezberdinak nola erabili ikasteaz gainera. Hala nola, kirolaren bitartez memoria, analisia eta kontzentrazioa landuko dituzte. Bestalde, irabazi eta galtzen ikasiko dute, hau dena, irakasleen eta hauek planteatutako ariketen laguntzarekin. Metodologiari dagokionez, Carlos Pascualek azaldu duenez, hastapen mailako ikasleen kasuan "hezkuntza-irakaskuntzaren metodologian oinarritzen gara, izaera teknikoagoa duen xakea alde batera utziz".

Oinarrizko ezagutzak bereganatu bezain laster, xake jokalariek maila altuagoetan jokatzeko aukera izango dute. Hortaz, joko maila altueneko jokalariek txapelketetan parte hartu ohi dute. I., II. eta III. mailako jokalarien ikastaroak astearte, asteazken eta ostegunetan egingo dira arratsaldeko 17:15etatik aurrera. "Kirolari bakoitzak erabakiko du zein mailara arte murgildu nahi duen xakearen munduan, kirol gisa praktikatu edo txapelketetan parte hartzeko", gaineratu du klubeko lehendakariordeak.

Segurtasuna eta gogoa eskutik

Ikasturte berrirako izen-ematei dagokienez Carlos Pascualen iritziz, "jendea gure jarduerarekiko interesa erakusten ari da, egoera normala izango balitz bezala". Presidenteordeak azaldu duenez, klubetik jendea arduraz jokatzen ari dela ikusi dute, baina, beldurrik izateko arrazoirik ez dago, segurtasun arau guztiak errespetatzen baitira. "Guztiok arauak errespetatuz gero, ez da arazorik egongo", gaineratu du Carlos Pascualek.

Osasun sailak eskolaz kanpoko jarduerei dagokion araudi eta protokolo berriak argitaratuz doan heinean, Bidasoa Xake Kluba unean-uneko segurtasun neurri guztiak betetzeko egokitzen ari da. Klubaren egoitza berriak segurtasun neurri guztiak errespetatu ahal izatea ahalbidetzen die, pertsonen arteko distantziak errespetatzeaz gainera, bazter guztietan eskuak garbitzeko gel hidroalkoholikoa eskura egongo den bitartean. Hortaz gain, maskara eskoletan uneoro erabiltzea beharrezkoa izango da.

"Asmoa ikasturtea aurrez aurreko formazioarekin hastea da, baina, egoeraren bilakaeraren arabera jarduera egokitzeko prest gaude", azaldu du Carlos Pascual presidenteak. Konfinamenduan zehar Bidasoa Xake Klubak online bidezko formazioekin funtzionatu zuen, ikastaro zein txapelketak antolatuz. Klubeko zuzendaritzaren ustez aurrez aurreko formazioak kirolarientzat onura gehiago dauzkan arren, Bidasoa Xake Kluba momentuko egoerara egokitzeko baliabide guztiak prest dauzka.

ESTUDIO FOTOGRAFICO
GO VER™
Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100,2°
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

Irune Muguruza, Bidasoa Altetiko Taldeko kirolaria:

“Denboraldi ezohikoa izan arren, txapelketetan marka onak lortzen ari naizelako pozik nago”

Irune Muguruza Espainiako Atletismo Txapelketa Absolutuan hesidun 400 metrotan lehiatu da, sailkapenean 15. postua lortuz. Txapelketa irailaren 12 eta 13aren artean egin zen Madrilen, Covid-19aren krisialdiaren aurrean neurri bereziak hartuz. Lehen erronka hau gaindituta, Irune Muguruzak bere kategoriako Espainiako Txapelketa prestatzeari ekingo dio denboraldia emaitza on batekin borobiltzeko asmoz.

Nola murgildu zinen atletismoaren munduan?
Txikitan balleta praktikatzen hasi nintzen, egun batean aitarekin Bidasoa Atletismo klubean nola entrenatzen zuten ikustera etorri nintzen arte. Azkenean, atletismoa gustuko nuela ikusi eta kirola probatu ostean, klubean sartu nintzen eta hemen jarraitzen dut.

Azkenaldian txapelketa asko izan dituzu denbora gutxian?
Denboraldi zaila izan dela esango nuke, pandemia eta itxialdiaren ondorioz etxean ohiko entrenamendu errutina mantentzea zaila izan delako. Etxean eta garajean ahal zen moduan entrenatzen ibili ostean, erritmoa berreskuratzeko ahalegin berezia egiten ari naiz eta momentuz gauzak erritmo onean doaz.

Konfinamenduak zure errendimendu fisikoan eraginik izan du?
Bai, izan ere, aurreko urtearekin alderatuta lehen sasoi hobean nengoela uste dut. Azken finean, konfinamendua kirolarientzako geldialdi bat suposatu du eta ondorioak nabariak dira.

Euskadiko Txapelketan lortutako emaitzekin pozik zaude?
Bai, denboraldi ezohikoa izan arren, txapelketetan marka onak lortzen ari naizelako pozik nago. Emaitza horiei esker Espainiako Atletismo Txapelketa Absolutuan parte hartzeko aukera lortu dut, beraz, oso pozgarria da. Hain zuzen ere, joan den urtean ez nuen Espainiako Txapelketan parte hartzeko aukerarik izan, beraz, gogo handiekin hartuko dut txapelketan nire burua neurtzeko aukera.

Atleta batentzat estatu mailako txapelketara iristea lorpen garrantzitsua da?
Bai, maila oso altuko kirolariekin elkartzen zara bertan eta goi mailako kirolariekin batera lehiatzeko aukera izatea esperientzia oso aberasgarria da niretzat.

“Goi mailako kirolariekin batera lehiatzeko aukera izatea esperientzia oso aberasgarria da niretzat”

Txapelketaren aurretik, nola ikusten zenuen zure burua txapelketara begira?
Emaitzak duzun egunaren araberakoak izan ohi dira kasu askotan. Agian lehengo urteko marka lortzea zaila izan zitekeen, baina, marka on bat egiteko aukerekin ikusten nuen nire burua.

Nola ikusi duzu zure burua Espainiako Altetismo Txapelketa Absolutuan?
Egia esateko pozik nago, denboraldi arraro honetako bigarren lasterketa izan delako eta denbora nahiko ona lortu dudalako. 15. postua lortu dut Madrilgo txapelketan. Orain hurrengo hilabetean daukadan nire kategoriako Espainiako Txapelketa prestatzea eta emaitza hobeago bat lortzea da nire helburua.

Estatu mailako txapelketa batean parte hartu duzun lehen aldia izan da?
Ez, hainbat urte daramatzat nire kategoriako Espainia mailako txapelketetan parte hartzen. Aurtengoa, ordea, atletismo txapelketa absolutuan parte hartu dudan lehen aldia izan da.

Aurreko txapelketetako esperientzia lagungarria izan zaizu?
Bai, lehenengo txapelketetatik hona lasaiago nabilela nabaritzen dut. Dena dela, zaila da txapelketa batean urduritasunak guztiz baztertzea.

“Zaila da txapelketa batean urduritasunak guztiz baztertzea”

Konfinamendua amaitu ostean, txapelketak prestatzeko denbora nahikorik izan duzu?
Bai, konfinamendua amaitu zenetik orain arte etenik gabe entrenatu dugu. Denbora apur bat falta izan zaigun arren, nire helburua nire kategoriako Espainiako lehiaketa da eta hori prestatzeko hilabeteko epea dut oraindik.

Erraza da uda osoa entrenatzen ematea?
Ez, uda denez askotan lagun eta familiarekin denbora aprobetxatzeko gogoak dituzu, beraz, alferkeria nabariagoa da. Hala ere, uda azkar pasatu zait eta nire helburuak lortzeko ahal bezain beste ahalegindu naiz.

Txapelketetan zein entrenamenduetan segurtasun neurri bereziak hartzen dira?
Bai, noski. Txapelketetan takoak erabili ostean desinfektatzen dituzte eta maskararekin ibili behar gara lehiatzen ari ez garen uneetan. Txapelketa absolutuan, adibidez, harmailetan ez da publikorik egon lasterketak egiten ziren bitartean. Entrenamenduetan gure entrenatzaileek ezarritako neurri guztiak gure aurretik probatu dituzte eta materiala erabili ostean ukitutako guztia desinfektatzen dugu.

Txapelketa absolutuaren ostean atseden hartzeko tarterik hartuko duzu?
Lehen txapelketa hau pasa ostean eta Espainiako nire kategoriako txapelketa egin ondoren, bi asteko atsedenaldia hartuko dut, hurrengo denboraldia prestatzen hasi aurretik.

ERAIKI DANTZA TALDEAREN IKASTURTE BERRIA

BIZI GAITEZEN DANTZAN

2020-2021 ikasturtea hastera doa!

5 urtetik gorako haur eta gazteentzat
(ikasturtean zehar beteak)

Talde txikiak eta esperientziadun monitoreak

Entseguak behobian dira

Ekintza ezberdinak: Iñudeak eta Artzainak, emanaldiak,...

Izena emateko

Tel: 669184179 (Ane)

eraikidantza@gmail.com

Informazio gehiago

Facebook: @Eraikidantza

ERAIKI DANTZA TALDEA

Endarlaza Hiribidea, 6,
20305 Irun, Gipuzkoa

Aurtengo ikasturtea covid-19 dela eta ezarritako segurtasun neurriak betez emango da.

San Vicente HH

Denbora-pasak

7 zuhaitz

B	Y	Z	F	C	C	S	Y	P	G	Y	R	E	K
F	N	N	C	U	H	P	Y	W	U	B	R	H	J
U	I	V	H	P	G	O	S	E	N	Y	D	H	L
R	T	N	U	L	Z	A	S	T	I	G	A	R	V
K	T	V	Q	H	A	R	I	T	Z	P	I	T	I
I	Z	W	N	Q	Y	P	X	P	N	Y	S	I	W
R	X	A	U	D	B	K	A	U	W	O	D	M	V
Q	Q	L	L	E	W	E	H	G	T	I	A	T	T
W	Q	E	C	M	D	O	R	L	O	W	U	D	Z
F	M	T	D	Z	G	X	I	I	Q	T	F	V	P
M	A	K	A	L	M	K	H	Z	H	Z	C	L	Z
G	P	J	Z	P	F	U	N	A	L	E	L	N	S
N	L	L	F	Y	E	J	V	R	B	R	U	J	X
B	I	N	T	X	A	U	R	R	O	N	D	O	U

Haritz, urki, intxaurrondo, lizar, pago, makal, astigar.

	6		8	3				5
7	3							
2					5		3	
8		4		6				
				2	9	7		4
		3			4		6	
				5				8
3		2		7	8		4	
			6		3	2		7

Euskaraz, Irunen barrena

Aranatz erri aundiya da.

Aranatz erri aundiya da. Lauten ogei baserri battu. Eliz ttikiya du. Mutikuri eta neskari eskola erakusteko battu maestru eta maestra. Maestrak eztaki uskaraz.

Maestruk itz batzuk badazki. Erretore jaunak izena du don Matias. Erretore jauna zarra da. Itxe batzutan ardiyak battuzte. Baserri itxe guzitan beiak badire. Zerriyak ere bai. Olluk ere bai.

Arantzako F.L.A., 13 urteko haurrari jasoa (1960-V-4). Egindako galderei emandakoerantzunak. Zuzenean hartua. (El Bidasoa, 1960-VI-18)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

El Pilar LH6

Berri txarrak taldea 1994an sortu zen. Nafarrokoak dira eta Rock musikako talde bat zen. Taldea osatzen zuten: Gorka Urbizu ahotsa eta gitarra, Galder Izagirre bateria jotzailea eta David González baxu jotzailea. 6 disko plazaratu dituzte: Infrasoinuak (2017), Denbora Da Poligrafo Bakarra (2014), Payola (2009), Jaio. Musika. Hil. (2005), Eskuak/Ukabilak (2001) eta Ikasten (1999).

2018ko abenduan jakinarazi zuten beren hurrengo biraren amaieran atseden mugagabea egingo zutela. Eta momentu hori iritsi da, azaroaren 24 eta 25ean beraien azkeneko kontzertuak eman zituzten Navarra Arenan. Argi zuten egiten zituzten azkeneko kontzertuak haien jaioterrian izango zirela.

Ostiral eta larunbateko kontzertuen artean 20.000 pertsona bildu zituzten Navarra Arenan. Benetan, egindako agurra mundiala izan da!

Esaten duten bezala, Berri Txarrak ez da musika talde bat bakarrik, Berri Txarrak sentimendu bat da.

Nika Gonzalez eta Claudia Teruel

Eskolako itzuleraren errealitate kolpe gogorra

2020/2021 ikasturtearen hasiera ohi baino korapilatsuagoa izaten ari da hezkuntzaren arloan lan egiten duten profesionalentzat. Sei hilabeteko etenaldiaren ostean, ikasgeletara itzultzeko momentua heldu da. Aitziber Gomez Irungo Eguzkitza BHI ikastetxeko zuzendariak zentroan eskolako itzulerara baliabide eskasia eta ziurgabetasunen artean nola egokitzen ari diren azaldu du.

Aurtengo kurtso hasiera ohi baino ezohikoagoa izaten ari da?
Bai, ezohiko bezain tristea. 1. eta 2. DBH ikasleei patioan arrera egin genien neurri berrien inguruan hitz egiteko. Gertutasun fisiko zein emozionala adierazten ahalegintzen garen arren, ez da erraza musuko tartean dagoen bitartean.

Denbora nahikoa izan duzue ikasgeletara ikasleen itzulera prestatzeko?
Azken jarraibideak oso berandu iritsi ziren, nahiz eta ekainetik zerbait aurreratzen ahalegindu garen. Ez gara segurtasun adituak eta gauzak ondo egiteko denbora gehiago behar dugu. Tokian tokiko beharrak kontutan hartu izan balira errazagoa litzateke eskolako itzulera prestatzea, irizpide orokorrak jarraitzea konplikatuagoa baita.

Ikasleekin egun gutxi batzuk ematea nahikoak izan da hobetu beharreko neurriez ohartzeko?
Bai, adibidez, marra gehiago non behar diren, kartel gehiago non jarri edo guztiei informazioa heltzeko nola helarazi behar dugun... Egunero berriztatzen goaz nola hobetu dezakegun ikusteko.

Nola egokitzen ari dira nerabeak egoera berri honetara?
Eskolara itzultzeko gogoak zeuzkaten, baina, badira urduri, kezkatuta eta beldurrez itzuli direnak. Lehen egun hauetan antsietate krisiak eta arnasa hartzeko zailtasunak izan dituzte zenbait ikaslek. Hori guztia oso gogorra da eta zaila da ikasleak lasaitzea.

Ikastetxeko sarrerak era mailakatuan egiten dira?
Bai, lau ate dauzkagu eraikinean sartzeko eta ate bakoitzetik kurtso bat sartuko da ordu desberdinetan, ikasleak pilatzea saihesteko.

Ikasgeletan ikasle kopurua murrizteko aukerarik izan duzue?
Ez, hiru talde eman dizkigute eta dauzkagun giza baliabideekin ezin izan ditugu gehiagotan banatu. Ratioa eta legedia inoiz baino zorroztasun gehiagorekin aplikatu dute. Hortaz, inoiz baino ikasle gehiago dauzkagu geletan.

Irakasle falta nabaritu duzue?
Aurreko ikasturtearekin alderatuta 5 irakasle gutxiago ditugu eta irakasleen jardunaldi mota kontutan hartuta galera askoz handiagoa izan da. Hezitzaileak dauzkagu ikastetxean eta hezitzaileen jardunaldi erdia galdu dugu. Ikasleen aldetik 3-4 ikasle gutxiago dauzkagu, kontutan izanda gure ikastetxean kurtsoan zehar ikasle berri asko sartzen direla.

Nola antolatzen duzue patioa?
Zorionez patio handia dugu eta 5 esparrutan banatu dugu ikastetxean DBH izateaz gainera, ZIP gela daukagulako. Hala ere, aterpean ez dago 300 ikasleentzako tokirik, beraz, euria egiten duenean ikasleak gelan geratu beharko dira patioan kurtsoka aterpea txandakatzen den bitartean.

“Tokian tokiko beharrak kontutan hartu izan balira errazagoa litzateke eskolako itzulera prestatzea” “Murrizketak izan dira eta informazioa berandu iritsi zaigu”

Gurasoak egoera honen aurrean lasai daude?
Ez, denetarik dugu. Zaila da guraso guztiei informazioa helarazteko modurik egokiena topatzea eta oso kezkatuta daude. Hedabideetan topatzen duten informazioa ez dator bat zentroaren errealitatearekin, adibidez, aurten 1.000 irakasle gehiago izango direla esaten denean. Murrizketak izan dira eta informazioa berandu iritsi zaigu. Ez dugu maskararik eta irakasle bakoitzak bere maskarak erosi behar ditu, horretarako aparteko dirurik eman ez delako. Ordenagailu kopurua bere horretan mantendu da eta kurtso oso bat ordenagailu gabe dugu, lehen bezala partekatzea ezinezkoa delako.

Berriro ikastetxeak itxiko balira, etxetik lanean jarraitzeko “B plana” prest duzue?
Berriro ikastetxeen itxialdi bat ez gertatzea espero dugu eta, gertatuko balitz, aurrekoan egin genuen bezala lehenengo egunetik lan egiteko dena prest dugu. Hau da, ikastetxean aurrez aurre, formazio mistoa eman edo itxialdi bati aurre egiteko prest gaude. Egoera guzti horien aurrean nola lan egingo genukeen azalduko diegu familiei datorren astean zehar.

Haurrak baino helduagoak direnez, errazagoa da gazteentzat hartu beharreko neurriak barneratzea?
Ulertzen duten eta egoera zein den badakite. Dena dela, haientzat ere gogorra da eta oso garrantzitsuak diren osasun irizpideak kontutan hartu diren arren, irizpide emozionalak eta hezkuntza irizpideak ez dira babestu. Ikasleak ondo daude, baina, ez daude beraien onenean. Patio garaian gauza asko debekaturik daude eta errealitate berri hau normaltasunetik oso urrun dago. Kasu askotan emozioek garrantzi gehiago dute, gaizki pasatzen ari den norbaitengana gerturatzea garrantzitsuagoa izan daitekeelako haientzat, nahiz eta guk kontrakoa adierazi.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

PARTICIP-ACTION, prestakuntza-ikastaroa

Gazteekin hezkuntza ez-formaletik herritarren parte-hartzea sustatzeko ikastaroa.

Norentzat: 18 eta 30 urte bitarteko gazteak edo gazteen esparruarekin erlazioa duten pertsonak.

Egunak: irailaren 24, 25, 28, 29 eta 30ean.

Ordua: 16:00etatik 19:00etara.

Lekua: Online, presentzia birtuala

Izena emate epea: irailak 20. Trukean unibertsitateko kredituak, diruz lagunduta eta plaza mugatuak!

Nazioarteko txartelak: ISIC, ITIC eta IYTC

2020ko irailaren 15etik aurrera ezingo dira txartelak eman, ISICen webgunearen www.isic.es beraren bidez bakarrik eskatu ahal izango dira.
- Nazioarteko Ikasle Txartela (ISIC)
- Nazioarteko Irakasle Txartela (ITIC)
- Nazioarteko Gazte Txartela (IYTC)

www.isic.es web orriaren bidez, zure txartela lortuko duzu, bai euskarri fisikoan (plastikoan), bai digitalean. Gogoratzen dizugu gaur egun ikasle edo irakasle izaera egiaztatzen duten doako beste dokumentu batzuk daudela (adibidez, unibertsitateetako eta beste ikastetxe batzuetako txartelak), eta nazioartean ere baliozkoak eta onartuak direla deskontuak eskuratzeko ISIC eta ITIC txartelen baldintza berberetan.

Boluntarioak behar dira

Gipuzkoako irabazi asmorik gabeko elkarteetan boluntarioki egin daitezkeen ekintzak asko dira.

Gizalde Gipuzkoako Boluntariotza elkartearen webgunea, horietako batzuk aurkituko dituzu, eta elkartearen bulegora (Autonomia kalea 19, behea, Donostia) gerturatuz gero, elkarteen boluntario behar gehiagori buruzko informazioa jasoko duzu.

Webgunean aurkituko dituzun elkarteetako ekintzetan parte hartu nahi bazenu, jar zaitez webgunean zehaztezn den harremanetarako pertsonarekin kontaktuan.

PatinEskola. 2020-2021 denboraldia

Patinatzen ez badakizu, eman izena! Eta badakizu, zure maila hobetzeko eta gehiago gozatzeko begiratu gure eskeintza eta zatoz!

Adina: Umeak eta helduak

Lekua: Irungo La Salle ikastetxea (Irun)

Maila guztietako ikastaroak!

Informazio gehiago:
www.patineskola.

Aisialdiko begirale, aisialdiko zuzendari eta gizarte eta kultura sustatzailentzako diplomak

Aisialdirako begiralea
Baldintzak: 18 urtetik gora izatea, edo, matrikulazio-urte barruan adin hori izatea eta eskolak berak eska ditzake baldintza osagarriak.

Aisialdirako zuzendaria
Baldintzak: 21 urte izatea, edo matrikulazio-urte barruan adin hori izatea ikastaroaren hasieran. Bigarren Heziketaldia edo horren baliokide den beste mailaren bat gainditua izatea. Eskolak berak eska ditzake baldintza osagarriak.

Gizarte eta kultura sustatzailea
Baldintzak: 21 urte izatea edo ikasturtean zehar betetzea, beti ere, praktikak egin aurretik. Goi-mailako Batxilergoko edo bigarren mailako Lanbide Heziketako titulua izatea, edo horren baliokidea, edo DBHko ikasketak bukatuak izatea. 25 urtetik gorakoek ez dituzte betekizun horiek bete behar. Boluntariotza-entitate bateko partaide aktiboa izatea.

Eusko Jaurlaritzak luzatzen du Gizarte eta Kultura Sustatzailea diploma eta ikastaroak ofizialtasunez onartutako zentroetan ematen dira.

Webgunea: www.gazteaukera.euskadi.eus



Irailak

17

Hitzaldia: "Mintza gaitezen... termino berriei buruz"

Zer: Ludifikazioa, dena da hobea jolasten.

Non: On-line.

Ordua: 18:00etatik 18:30etara.

Parte hartzeko: Youtuben sartu, Kazetaguneatic bilatu eta kanpainia sakatu zu abisatzeko.

Prezioa: Doakoa.

Hizkuntza: Euskaraz.

19

Ribera programa

Zer: Mugaren kontzeptua, ibaia eta arte garaikidearekin lotura duen ekintzen egitarauaren bosgarren edizioa.

Non: Patricio Arabolaza bidegorrian eta Santiagotarrak inguruan.

Ordutegia: Ekintzak goiz osoan zehar.

19

Dantza: "Erritu"

Zer: Kukai dantza taldearen Erritu ikuskizuna.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 20:00etan.

Prezioa: 7,75 euro.

Iraupena: 70 minutu.

Sarrerak: Antzokiaren webgunean.

20

Gira Bira: Ilustrazioa

Zer: Irungo parkeak berraurkitzeko programa.

Non: Alai Txoko parkean.

Ordua: 12:30etan.

Prezioa: Doan.

22

Argitu tailerra

Zer: Ibilgailu elektrikoei eta mugikortasun jasangarrirako aukerei buruzko saio praktikoa.

Non: Palmera Montero gunean.

Ordua: 18:30etan.

Prezioa: Doan.

Sarrerak: edurne@izadi21.eus posta-elektronikora idatziz edo 628532303 telefono zenbakian astelehenetik ostiralera, 9:00etatik17:00etara.

27ra arte

Margo erakusketa

Zer: Xabier Arribas Pintura akademia.

Non: Laboral kutxa (Colón pasealekua, 13).

Ordutegia: Astelehenetik larunbatera 18:00etatik 20:30etara eta igandeak eta jaiegunak 11:30etatik 13:30etara.

Prezioa: Doakoa.

Denbora-pasen emaitzak

B	Y	Z	F	C	C	S	Y	P	G	Y	R	E	K
F	N	N	C	U	H	P	Y	W	U	B	R	H	J
U	I	V	H	P	G	O	S	E	N	Y	D	H	L
R	T	N	U	L	Z	A	S	T	I	G	A	R	V
K	T	V	Q	H	A	R	I	T	Z	P	I	T	I
I	Z	W	N	Q	Y	P	X	P	N	Y	S	I	W
R	X	A	U	D	B	K	A	U	W	O	D	M	V
Q	Q	L	L	E	W	E	H	G	T	I	A	T	T
W	Q	E	C	M	D	O	R	L	O	W	U	D	Z
F	M	T	D	Z	G	X	I	I	Q	T	F	V	P
M	A	K	A	L	M	K	H	Z	H	Z	C	L	Z
G	P	J	Z	P	F	U	N	A	L	E	L	N	S
N	L	L	F	Y	E	J	V	R	B	R	U	J	X
B	I	N	T	X	A	U	R	R	O	N	D	O	U

4	6	9	8	3	2	1	7	5
7	3	5	4	1	6	8	2	9
2	8	1	7	9	5	4	3	6
8	2	4	5	6	7	9	1	3
5	1	6	3	2	9	7	8	4
9	7	3	1	8	4	5	6	2
6	4	7	2	5	1	3	9	8
3	5	2	9	7	8	6	4	1
1	9	8	6	4	3	2	5	7

Matrikula epea irekita!

morrisacademy.com/welcome

- Cambridge azterketen prestakuntza emaitza paregabeekin.
- Metodologia dinamikoa eta eraginkorra.
- Irakasle natiboak.
- Prezio erakargarriak.
- Teknologia berrien erabilera.
- EEBBtan eta Irlandan udako egonaldiak.

WELCOME School of English

Morris Academy

943 61 30 61

Gipuzkoa hiribidea, 2. zbk -1 eskubi. IRUN

welcome@welcomeshool.es